Udaletxeak Energia Eraginkortasuneko ziurtagiria eta dagokion energia-auditoria ditu, 70 kW baino potentzia termiko handiagoa duen eraikina delako. Energia-auditoriak daude 70 kW baino potentzia termiko handiagoa duten eraikinetarako, eta eraikin publiko gehienen energia-ziurtagiriak Energia Eraginkortasuneko Ziurtagirien Erregistroan inskribatuta daude.

	Argiteria publikoan, eraikin publikoetan eta etxebizitza sozialetan energia-eraginkortasunerako jardunbide egokienak
	(Administrazio Publikoko SED, 3.2.4, 3.2.5, 3.2.6, 3.2.8, 3.2.9 eta 3.2.10)
☑	Argiteria publikoaren sistemaren auditoria egitea.
☑	Luminariak hobetzea eta goranzko argiztapena eta argi intrusiboa saihestea, baita argi erabilgarria maximizatzea ere.
☑	Argiztapen-mailak benetako beharretara egokitzea.
☒	Dauden eraikin publikoen energia-eraginkortasuna maximizatzea eta energia-kontsumoa minimizatzea
☑	Eraikin publiko berriak eta etxebizitza sozial berriak (edo haien berritzea) energia-eraginkortasun handiarekin proiektatzea.
☑	Eraikinetan energia-eraginkortasuneko ziurtagiriak hartzea.
☒	Eraikinak kudeatzeko ardura duten langileak energia-eraginkortasunari buruz prestatzea.
☑	Langile guztiak energia-kontsumoan eragiten duten jarduketetan inplikatzea.

7.2.3 Udalerrien arautze- eta plangintza-funtzioekin eta udalerriek lurraldean duten eraginarekin lotutako ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak

Eraikin berriei edo haien birgaitzeari eskatzen zaien energia-eraginkortasunari dagokionez, Eraikuntzaren Kode Teknikoan (EKT) ezarritakoa eta, zehazki, haren parte den Energia Aurrezteko Oinarrizko Dokumentuaren (DB-HE) eskakizunak bete behar dira. DB-HEk eraikinak energia-kontsumo txikirako proiektatzera behartzen du, eta kontsumo hori neurri handi batean iturri berriztagarrietako energia erabiliz asetzea, klima-aldaketa arintzeko eta herrialdearen energia-erabilerarekiko mendekotasuna eta intentsitatea murrizteko.

Azpimarratzekoa da Mankomunitatean eskualdeko Energia Plana gauzatzeko lantalde bat dagoela. Plan horren bidez energia berriztagarrien erabilera sustatzen ari da industria-, zerbitzu- eta etxebizitza-sektoreetan. 2025ean honako ekintza hauek gauzatu dira:

1. Energia-kultura berria eta klima-konpromisoa
    - urolagaraia2030.eus webgunearen garapena eta diseinua: energia-bulego birtuala eta herritarren parte-hartzerako plataforma (amaitu gabe)
2. Tokiko ekonomia eta energia - Politikariei eta teknikariei zuzendutako prestakuntza: legedia eta finantzaketa-iturriak.
3. Mugikortasun Jasangarria
    - Diagnostikoa egitea eta eskualdeko mugikortasun jasangarrirako erronkak definitzea.
4. Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa
    - Karbono-aztarna kalkulatzea
    - EAZei buruzko prestakuntza

5. Energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna - Bonu sozialari buruzko liburuxka eta gomendiodun infografia diseinatu eta zabaltzea.

Bestalde, Udalak energia sortzeko Energia Komunitate bat sortzea bultzatu du, plaka fotovoltaikoak instalatuz; Ekiola du izena. Ekimen horrek 0,999 MW-eko instalazio fotovoltaikoa egin du, 700 etxebizitza hornitzeko adina energia sortuko duena. 2024an obra- eta jarduera-lizentzia eman zen eta plaka fotovoltaikoak instalatzen hasi ziren.

2025ean plaka fotovoltaikoen instalazioa amaitu da eta 2026an martxan jartzea aurreikusten da.

Sektore publikoak energia-eraginkortasuna sustatzeko duen eginkizunarekin lotutako jardunbide egokienak

(Administrazio Publikoko SED, 3.2.11, 3.2.13, 3.2.14 eta 3.2.15)

- ☒ Eraikinak eraikitzea eta berritzea energia-arau eredugarrien arabera egitea nahitaezkoa izatea ezartzea.
- ☒ Obra-lizentziak izapidetzean energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak integratzea sistematikoki kontuan hartzea.
- ☑ Proiektu eredugarrien bidez Udalak energia-eraginkortasunarekin duen konpromisoa erakustea.
- ☑ Herritarrek beren ingurumen-inpaktua murrizteko hartutako neurriak babesteko pizgarriak ezartzea.
- ☑ Elkarte estrategikoak, publiko-pribatuak barne, ezartzea, komunitatea energia-eraginkortasuneko eta energia berriztagarriko proiektuak garatu eta gauzatzen inplikatzeko.
- ☑ Herritarrei eta enpresei energia-kontsumoa murrizten laguntzeko informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak sortzea.
- ☒ Udalerriko eraikitako ingurunearen azterketa termografikoak egitea.

7.2.4 Mugikortasunarekin lotutako ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
Sektoriala (Administrazio Publikoko SED) eta Udalsarea 2030ekoa	Udalerriak oinez/bizikletaz egindako joan-etorrietarako azpiegituretan inbertitzeko estrategia edo plan espezifiko bat du, eta joan-etorri mota hori handitzeko helburu neurgarriak eta politikoi onartuak ditu. (Bai/Ez)	2021	Ez		Ez da betetzen
		2022	Ez		
		2023	Ez		
		2024	Ez		
		2025	Ez		
	Txirrindularientzako azpiegituraren luzera (Bidegorria) (km/10.000 bizt.)	2021	4,17	Udalsarea 2030 (2015. urtea): 7,1	Ez da betetzen
		2022	4,19		
		2023	4,19		
		2024	4,18		
		2025	4,19		
	Oinezkoentzako erabilera-azalera (Ha)	2021	0,3		
		2022	0,3		
		2023	0,3		
		2024	0,3		
		2025	0,3		
	Udalaren ibilgailu elektrikoak (unit.)	2021	0		
		2022	0		

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
		2023	1		
		2024	1		
		2025	1		
	Udalerrian matrikulatutako ibilgailu elektrikoak (hobaria duten ibilgailu unitateak)	2021	9		
		2022	10		
		2023	8		
		2024	12		
		2025	20		

Mugikortasun jasangarria sustatzeari dagokionez, udalerrian egindako ekimen aipagarrienak honako hauek izan dira:

- Urretxuko mugikortasun jasangarriaren diagnostikoa idaztea 2021ean
- Urretxuko Mugikortasun Jasangarriko Plana egitea 2022-2023an. 2025ean Mugikortasun Jasangarriko Planaren diagnostikoko datuak eguneratu dira.
- Erdiguneko aparkalekuaren erregulazioa: 2025ean TAO aparkaleku-sistema handitu da. 3. eta 4. eremuak 2025eko apirilaren 23an onartutako Udal Ordenantzan sartu dira.
- Karga azkarreko bi puntu egin dira: bata Mugitegiko Industrialdean eta bestea Barrenkale 13an.

Mugikortasunarekin lotutako ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak (Administrazio Publikoko SED 3.3.1, 3.3.2 eta 3.3.5)

- ☑ Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana onartzea
- ☒ Oinez eta bizikletaz egindako joan-etorriak sustatzeko neurriak eta estrategiak hartzea. (Azpiegiturak, herritarren eta langileen artean sentsibilizazio-kanpainak…)
- ☑ Administrazio publikoaren ibilgailu-flotarako ibilgailu elektrikoak erostea.

7.2.5 Lurzoruaren erabilerarekin lotutako ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
Sektoriala (Administrazio Publikoko SED)	Lurzoru artifizializatuaren ehunekoa, udalerriaren azalera osoarekiko	**2021**	10,90	**Udalsarea 2030 (2015. urtea): 10,9**	**Betetzen da**
		2022	10,74		
		2023	10,74		
		2024	10,74		
		2025	10,74		

Ez da lehendik dagoenaz gain lurzoru gehiago artifizializatzen ari. Sarraldeko 9.827 m2-ko partzelaren Lurzoruaren Kalitate Adierazpena lortu da, eta Irimoko bi partzela garrantzitsuren Lurzoruaren Kalitate Adierazpena egin da (Irimo S.A., 8.730 m2-koa, eta Low-cost gasolindegia, 721 m2-koa), potentzialki kutsatutzat kalifikatuak, Urretxuko udalerrian berrerabiltzeko.

Eremu horiek, berreskuratu ondoren, jarduera berriak ezartzeko erabili dira: Talleres Tellería, Low Cost gasolindegia eta Smartlog.

	Lurzoruaren erabilerarekin lotutako ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak (Administrazio Publikoko SED 3.4.1, 3.4.2)
☑	Hiri-hedapena berdegune eta nekazaritza-lurretara mugatu eta kontrolatzea
☒	Hiriko bero-uhartearen efektua arintzea hainbat neurri aplikatuz (berdeguneak, teilatu berdeak, material islatzaileak erabiltzea…)

7.2.6 Hiriko berdeguneekin lotutako ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
Sektoriala (Administrazio Publikoko SED)	Berdegunea biztanleko (m2/bizt.)	**2021**	16,05		
		2022	16,13		
		2023	16,14		
		2024	16,08		
		2025	16,14		

	Hiriko berdeguneekin lotutako ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak (Administrazio Publikoko SED 3.5.1)
☑	Hiri-biodibertsitatearen aldeko neurriak ezartzea.
☑	Hiri-paisaian sare urdin-berdeak ezartzea
☒	Teilatu berdeen eraikuntza sustatzea
☒	Utzitako berdeguneak eta eremu marjinalak lehengoratzeko plana aplikatzea

Hiri-biodibertsitatearen aldeko honako neurri hauek hartu dira:

- Lorezaintza-landaketetan bertako eta/edo klima-aldaketarekiko erresilienteak diren espezieak erabiltzea
- Udalak sustatutako urbanizazio-obretan azalera drainatzailea handitzea
- Udalak sustatutako urbanizazio-obretan material birziklatuak erabiltzea
- Ipeñarrieta kaleko urbanizazio berrian hiri-berdegunea handitzea, Telleria eta Smartlog pabiloi berrien aurrean.

7.3 TOKIKO INGURUNEKO AIREAREN KALITATEAREKIN LOTUTAKO INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE EGOKIENAK

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
Sektoriala (Administrazio Publikoko SED)	PM10 suspentsioko partikulen kontzentrazioa (µg/m3)	2021	13	Administrazio Publikoko SED (3.6.1): Emaitzek OMEk aurreikusitako aire-kalitatearen mailak lortzen dituzte	Betetzen da
		2022	13		
		2023	14,22		
		2024	12,94		
		2025	13,65		
	Urtean PM10en 50 µg/m3-ko kontzentrazioa gainditzen den egun kopurua	2021	3		
		2022	0		
		2023	2		
		2024	1		
		2025	0		
	NO2ren urteko batez besteko kontzentrazioa (µg/m3)	2021	11		
		2022	11		
		2023	11,48		
		2024	10,17		
		2025	9,91		
	Urtean NO2ren 200 µg/m3-ko kontzentrazioa gainditzen den egun kopurua	2021	0		
		2022	0		
		2023	0		
		2024	0		
		2025	0		
	Urtean O3 ozonoaren kontzentrazioak 120 µg/m3-ko balioa gainditzen duen egun kopurua	2021	0		
		2022	4		
		2023	0		
		2024	0		
		2025	0		
	("Oso ona" kalifikazioa duten egun kopurua + "Ona" kalifikazioa duten egun kopurua + "Hobetu daiteke" kalifikazioa duten egun kopurua) / urteko egun kopuru osoa (%)	2021	92,05		
		2022	90,14		
		2023	93,42		
		2024	93,17		
		2025	d.g.		

Urretxun ez dago Eusko Jaurlaritzaren Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareko aire-kalitateko estaziorik. Adierazlean aurkezten den informazioa Eusko Jaurlaritzak Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareko Zumarragako estazioan jasotako datuetatik abiatuta egindako aire-kalitatearen mailen zenbatespen bati dagokio. Datu horiek Isurien Urteko Txostenean argitaratzen dira.

Bestalde, azpimarratzekoa da Urretxuko Udalak Biodonostia Osasun Ikerketa Institutuak gauzatzen duen Haurtzaroa eta Ingurumena proiektua diruz laguntzen duela. Erakunde horrek 2006az geroztik Gipuzkoako hainbat udalerritan, tartean Urretxun, airearen kalitatea aztertu du. Era berean, airearen kalitateak eta beste ingurumen-faktore batzuek haurren garapen fisiko eta psikologikoan izan dezaketen eragina aztertu dute.

Airearen kalitatearen ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak (Administrazio Publikoko SED, 3.6.1)

- ☒ Airearen kalitatea hobetzeko plan egituratua (garraioa, industria-instalazioak, energia-ekoizpena…)
- ☒ Herritarrei airearen kalitatearen ondorioei eta garrantziari buruzko informazioa zabaltzea, garraio jasangarrien erabilera sustatuz.

7.4 KUTSADURA AKUSTIKOAREKIN LOTUTAKO INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE EGOKIENAK

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
Sektoriala (Administrazio Publikoko SED)	Ostalaritza-jardueren zarata-mailarekin lotutako espediente kopurua	**2021**	**1**	**Ez dago**	
		2022	**3**		
		2023	**2**		
		2024	**4**		
		2025	**2**		

Urretxuko Udalak 2011n egindako zarata-mapa bat du, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko eguneratu zen. Bertan dauden urbanizatutako eremuen helburu akustikoak jasotzen dira eta eremu bakoitzari lotutako helburuen betetze-maila ebaluatzen da. Era berean, zarata-isurien aurrean pertsonak babesteko Udal Ordenantza bat du.

Azpimarratzekoa da zaratari buruzko kexa gehienak ostalaritza-jarduerek sortutakoak direla. Jarduera horietan musikak sortutako mailak kontrolatzen dira eta sonografo mugatzaile izeneko gailu bat dute, mailak Legeak ezarritakoa gainditzea eragozten duena.

Soinu-kalitatearen ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak (Administrazio Publikoko SED 3.7.1)

☒ Udalerriko zarata-mapa egitea. Tokiko zarata-mailak murrizteko eta soinu-ingurunearen kalitatea mantentzeko ekintza-planak egitea.

☒ Herritarrei kutsadura akustikoaren ondorioei buruzko informazioa zabaltzea.

7.5 HONDAKINEN KUDEAKETAKO INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE EGOKIENAK

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
Sektoriala (Hondakinen Kudeaketako SED)	Etxeko eta merkataritzako hondakinen sorrera biztanleko (kg/bizt./urte)	**2021**	310,19	**Hondakinen Kudeaketako SED (3.3.1):** HHH sorrera 360 kg/bizt./urte baino txikiagoa	**Betetzen da**
		2022	296,87		
		2023	301,53		
		2024	304,95		
		2025	303,39		
	Energia-balorizaziora eta/edo ezabaketara bideratutako hondakinen sorrera (kg/bizt./urte)	**2021**	62	**Hondakinen Kudeaketako SED (3.3.3):** Ezabaketara bideratutako hondakin-kantitatea 70 kg/bizt./urte baino txikiagoa	**Betetzen da**
		2022	60		
		2023	59		
		2024	68		
		2025			
	Etxeko eta merkataritzako hondakinen gaikako bilketa-tasa (%)	**2021**	80		
		2022	80		
		2023	80		
		2024	77,70		
		2025	78		
Udalsarea		**2021**	91,44		
		2022	86,47		

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
	Etxeko edo merkataritzako biohondakinen bilketa (kg/bizt./urte)	**2023**	82,85		
		2024	78,77		
		2025	78,62		

Hondakinen kudeaketa Sasieta Mankomunitatearen bidez egiten da. Zerbitzuak bide publikoan kokatutako edukiontzietako hondakin-bilketa, Matxinporta eta Mugitegi Industrialdeetako hondakin-bilketa eta Garbigunearen kudeaketa hartzen ditu barne.

Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa hobetzeko ekimen berrienak honako hauek dira:

- Kafe-kapsulak birziklatzea
- Arropa, olio eta pilak biltzeko edukiontzi kopurua handitzea
- Edukiontzi-puntuak irisgarritasun-irizpideetara egokitzea
- Traste zaharrak biltzeko eremuak hobetzea
- Mugitegi eta Matxinporta Industrialdeetan hondakinak atez ate biltzea
- Ostalaritza- eta merkataritza-establezimenduetako hondakinak atez ate biltzea
- Udal-erakundeek antolatutako ekitaldietan hondakinen gaikako bilketa ahalbidetzea
- 2 minigarbigune jartzea
- Hondakinen Europako Astean sentsibilizazio-kanpaina

Hondakinen kudeaketako ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak (Hondakinen Kudeaketako SED)

- ☑ Bildutako fluxuei buruzko datuak ezagutzea.
- ☑ Herritarren artean hondakinak prebenitzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko jokabidea sustatzea.
- ☑ Hondakinak prebenitzeko neurriak hartzea.
- ☑ Produktuak berrerabiltzea eta hondakinak berrerabiltzeko prestatzea sustatzeko neurriak hartzea.
- ☑ Garbigunea ezartzea.

7.6 UR-HORNIDURAKO INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE EGOKIENAK

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
Sektoriala (Administrazio Publikoko SED)	Ur-kontagailuen ezarpen-indizea (%)	**2021**	100	Ur-kontagailuen ezarpen-indizea % 99koa edo handiagoa da	**Betetzen da**
		2022	100		
		2023	100		
		2024	100		
		2025	100		
	Ur-galeren ehunekoa, sisteman sartzen den bolumenarekiko (%)	**2021**	7,30	Udalsarea 2030 (2019. urtea: 22,81	**Betetzen da**
		2022	4,55		
		2023	7,50		
		2024	4,21		
		2025	4,40		

Edateko uraren hornidura guztiz automatizatuta dago, eta sistemak gehiegizko kontsumoa hautematen duenean alarma sortzen du. Sistema horri esker, ur-galerak urtero murrizten ari dira.

7.7 HONDAKIN-UREN KUDEAKETAKO INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE EGOKIENAK

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
Udalsarea	Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa. (Uro-158 estazioa)	**2021**	Ona		
		2022	Ertaina		
		2023	Ertaina		
		2024	Ertaina		
		2025	d.g.		
	Hondakin-urak tratatzeko sistema egokiak dituzten saneamendu-sarera konektatutako udalerriko etxebizitzak (%)	**2021**	91,52		
		2022	91,37		
		2023	91,32		
		2024	91,99		
		2025	92,32		

(*) Ingurumen Adierazpena baliozkotzeko unean ez dago 2025eko ibaiaren kalitateari buruzko daturik. Informazio hori hurrengo Ingurumen Adierazpenean eguneratuko da.

Uraren Zikloaren kudeaketa integrala - hartzea, edangarri bihurtzea, garraioa eta saneamendu-sarea - Aquarbe enpresa emakidadunaren bidez egiten da.

Urretxuko hiri-sareko isurketa ia guztiak jasota badaude ere, gabeziak hautematen diren kasuetan hobekuntza-obrak egiten dira. 2022ko abendutik 2023ko urtarrilera bitartean udal-igerilekuko hondakin-urak saneamendu-sarearekin konektatu ziren. Bestalde, Eguneko Zentroko saneamendu-hodiaren 31 m berritu dira.

2024an Aparicio auzoko euri-uren sarea hobetu da Ipeñarrieta kaleko asfaltatze-obretan.

2025ean iturburuen aprobetxamendua hobetzeko memoria baloratua idatzi da.

Ur-horniduran eta hondakin-uren saneamenduan ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak

(Administrazio Publikoko SED, 3.9.1, 3.9.2, 3.10.6 eta 3.10.7)

- ☑ Etxebizitza-unitate bakoitzean eta beste edozein azken erabiltzailerentzat ur-kontagailuak jartzea.
- ☑ Ur-kontagailu adimendunak jartzea.
- ☑ Ur-banaketako sistemaren ur-balantze xehatua egitea eta uraren presioa kudeatzea, maila altuak saihestuz.
- ☑ Ur-banaketako sarea aztertzea eta sektore egokietan banatzea, ur-ihesak hautemateko.
- ☑ Hautemandako akatsei eta sareko ihesei erantzun azkarra eta egokia ematea.
- ☑ Instalazioei, hodien antzinatasunari, datu hidraulikoei, esku-hartzeei eta abarri buruzko informazio georreferentziatua izatea.
- ☒ Saneamendu-sare unitarioetako gainezkabideak eta euri-uren sareetako euri-urak atxikitzea eta tratatzea (ekaitz-tangak)
- ☒ Hiri Drainatze Jasangarriko Sistemak (HDJS) ezartzea erraztea; azken helburua jariatzeak, putzuak eta sareen saturazioa murriztea da.

7.8 KONTRATAZIO PUBLIKO EKOLOGIKOKO INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE EGOKIENAK

Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Mota	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen ehunekoa, lizitazio guztien kopuruarekiko.	Sektoriala (Administrazio Publikoko SED)	**2021**	**50%**	**Administrazio Publikoko SED (3.11):** Lizitazioen % 100ek EBko Kontratazio Publiko Ekologikoko irizpideetan ezarritako gutxieneko jokabide-maila eskatzen duten ingurumen-irizpideak jasotzen dituzte, baldin eta produktu horretarako irizpide horiek badaude (adibidez, garbiketa-produktuak, bulegoko papera, altzariak, etab.).	**Prozesuan**
		2022	**27%**		
		2023	**50%**		
		2024	**57%**		
		2025	**57%**		

2025ean egindako 14 lizitazio publikoetatik 8tan ingurumen-irizpideak sartu dira. Lizitazio horiek honako hauek izan dira:

- Urretxuko haur-parkeak eta parke bioosasungarriak ikuskatzeko eta mantentzeko zerbitzua
- Urretxuko Pagoeta zentroan igogailu bat instalatzeko obrak.
- Urretxuko Pagoeta zentroan suteak detektatzeko sistema eta BIEak, megafonia eta aireztapen-sistemak hornitu eta instalatzea.
- Basagasti kaleko bidegurutzearen eta Urretxuko Etxaburu eremuaren arteko zoladura birgaitzeko obrak.
- Urretxuko Eguneko Zentroaren erabilera handitzeko obrak.
- Urretxuko nerabeentzako zerbitzuaren kudeaketa (Gaztebidean).
- Autogarbigarria den komun bat pixatokiekin hornitu eta instalatzea.
- Urretxuko Mugitegi industrialdeko D bideko 9-11 pabiloian eskalada-ekipamendua hornitu eta instalatzea, eta espazioa erabilera horretara egokitzeko beharrezko obrak.

Kontratazio publiko ekologikorako ingurumen-kudeaketako jardunbide egokienak (Administrazio Publikoko SED, 3.1.1)

☑ Kontratu publiko guztietan ingurumen-irizpideak sistematikoki sartzea

☒ Lizitazio publikoetan hornitzaileak EMASen erregistratuta egotea baloratu beharreko alderdi gisa sartzea.

7.9 INGURUMEN-HEZKUNTZAKO ETA INFORMAZIOAREN HEDAPENEKO INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE EGOKIENAK

Mota	Ingurumen-jokabidearen adierazleak	Urtea	Balioa	Erreferentzia-esparrua / erreferentzia-parametroak	Betetze-maila
Sektorial a (Adminis	Ingurumen-hezkuntzako ekintzek zuzenean eta zeharka iritsitako herritar kopurua.	**2021**	**1.625**		
		2022	**8.035**		

		2023	3.179		
		2024	59.079		
		2025	2.416		

Azken urteetan ingurumen-sentsibilizazioko honako kanpaina hauek egin dira:

Urtea	Ekintza	Parte-hartzaileak edo webgunearen bidez iritsitako pertsona kopurua
2019	Gainzuriko kantxan mural bat margotzea	4.277
	FOKATU argazki-lehiaketa	131
	Hondakinen astea - Aldatu zure ohiturak	2.862
	Klima-aldaketak generoa du	600
	Erreka eguna	100
	Mugikortasun astea - Bizidesplázate	10
2020	Erreka eguna - Bideoa	1.006
	Hondakinen astea - Ohitura jasangarriak	6.991
2021	Hondakinen astea - Poltsarik ez	802
	Mugikortasun astea - Tunea tu bici	823
2022	Argitu programa	13
	Hiriko zuhaiztian identifikazio-plakak jartzea	6.799
	Erreka eguna	1.223
2023	Ingurumen-hezkuntzaren eguna	741
	Ezagutu Urola Garaiko zuhaitzak	966
	Mugikortasun Jasangarriaren Europako Astea	517
	Asteklima 2023	473
	Argitu programa	486
	Argitzen Urola Garaia	444
	Erreka eguna	100
2024	Erreka eguna	380
	Mugikortasun astea	47.124
	Hondakinen astea	11.575
2025	Hondakinen astea	2.416

Ingurumen-hezkuntzan eta informazioaren hedapenean ingurumen-kudeaketako jardunbide egokien aukeraketa
(Administrazio Publikoko Sektoreko SED, 3.12)

- ☑ Herritarrak ingurumen-arazoei buruz sentsibilizatzea.
- ☑ Herritarrek eta enpresek egunerokoan ingurumena babestearen eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzearen alde egin dezaketen ekarpenari buruzko informazio praktikoa ematea.
- ☑ Gizarteko talde desberdinen artean jokabide-eredu berriak sortzea.
- ☑ Herritarrak tokiko ingurunea ezagutu eta baloratzera eta naturarekin berriz konektatzera animatzea.
- ☒ Hiri-eremuen eta inguruko natura- eta landa-eremuen arteko ingurumen-mendekotasunari buruzko ezagutza handiagoa sustatzea.

8. KEXAK ETA SALAKETAK

2025eko urtarriletik abendura bitartean ez da URRETXUKO UDALAREN ingurumen-jokabidearekin lotutako kexarik edo salaketarik izan.

9. INGURUMEN-LEGEDIA BETETZEAREN LABURPENA

FO-6.1.3-01 "2026ko martxora eguneratutako legedia" formatua dago, eta bertan gure erakundeari aplikatu beharreko lege-baldintzak argi eta labur jasotzen dira. Jarraian, aplikatu beharreko lege-baldintzen laburpen-taula erantsi da.

Gaia	Jarduera/instalazioa	Legedia/Arauak	Legediatik ateratako baldintza aplikagarriak		Betetzen du	Oharrak
HONDAKINAK	**Hiri-hondakinak**	**ESTATUKOA** 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.	7/2022 Legea 20. art. 24. art. 25. art.	Etxeko hondakinen hasierako ekoizleak edo beste edukitzaile batek hondakinak jatorrian bereizi beharko ditu eta toki-erakundeen ordenantzetan ezarritako baldintzetan entregatu, 25. artikuluan ezarritakoaren arabera (hondakinak balorizatzeko bereizita biltzea). Hondakinak berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzea	Bai	
	Hondakin arriskutsuak. Hondakin ez-arriskutsuak	**ESTATUKOA. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, BOE 85. zk., 2022ko apirilaren 9koa** 180/2015 Errege Dekretua, martxoaren 13koa, Estatuko lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duena. 5/2013 Legea, ekainaren 11koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldatzen dituena. **AUTONOMIKOA** 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak zabortegian utzita ezabatzea eta betelanak egitea arautzen duena. 2009.03.18, EHAA 54. zk.	7/2022 Legea 20. art.	Hasierako ekoizlearen edo beste edukitzaile baten betebeharrak, bere hondakinen kudeaketari dagokionez	BAI	
			7/2022 Legea 21. art.	Hondakinak biltegiratu, nahastu, ontziratu eta etiketatzeari buruzko betebeharrak	Bai	
			7/2022 Legea 20. art.	Hondakinen hasierako ekoizlea edo beste edukitzaile bat behartuta dago bere hondakinen tratamendu egokia bermatzera	Bai	
			7/2022 Legea 21. art.	Hondakin ez-arriskutsuen biltegiratze-denbora gehienez 2 urtekoa da balorizaziora bideratzen direnean, eta urte 1ekoa ezabaketara bideratzen direnean.	Bai	
			49/2009 Dekretua: 17.1 art.	Potentzialki birziklagarriak, berrerabilgarriak edo balorizagarriak ez diren hondakin ez-arriskutsuak kontrolatutako edo baimendutako zabortegira entregatzen dira.	Bai	Hondakin guztiak udal-zerbitzuen bidez kudeatzen dira, tonerra izan ezik; hori kudeatzaile baimendu baten bidez kudeatzen da.
	Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak	**ESTATUKOA. 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena. 2008.02.13, BOE 38. zk.** 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, BOE 85. zk., 2022ko apirilaren 9koa. AUTONOMIKOA. 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena. 2012.09.03, EHAA 171. zk.	112/2012 Dekretua, 4.a art.	Obraren oinarrizko eta gauzatze-proiektuetan hondakinak kudeatzeko azterlan bat sartu da, profesional eskudunak sinatua eta elkargoak ikus-onetsia.	Dagokionean	
			112/2012 Dekretua, 4.d art.	Obrako eraikuntza- eta eraispen-hondakinei dagokienez ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzen duen fidantza eratu da.	Dagokionean	
			112/2012 Dekretua, 7.1 art.	Edukitzaileak edo kontratistak egindako Hondakinen Kudeaketa Plana onartu da eta obraren kontratu-dokumentuetan sartu da.	Dagokionean	
			112/2012 Dekretua, 4.c art.	Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa zuzena egiaztatzen duten dokumentuak daude.	Dagokionean	
			112/2012 Dekretua, 4.e art.	Udalean Kudeaketaren Amaierako Txostena aurkeztu da, Elkargo Ofizialak egiaztatua, EEDen edukitzaileak berak egindako hondakinen kudeaketari buruz entregatutako dokumentazioan oinarrituta.	Dagokionean	
			112/2012 Dekretua, 4.f art.	Eraikinaren Liburuan jasotzen dira hondakinak balorizatuz lortutako eta obran erabilitako bigarren mailako materialen kantitateak.	Dagokionean	
			7/2022 Legea 30. art.	1. Nahastea debekatuta 2. Hondakinen sailkapena 3. Eraispena modu selektiboan	Dagokionean	
	Aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak	110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa	110/2015 ED, 4. art.	Aparatu Elektriko eta Elektronikoen (AEE) erabiltzaileak berrerabiltzera bideratu edo hondakin gisa baztertu ahal izango ditu.	Bai	Hondakin guztiak udal-zerbitzuen bidez kudeatzen dira.
			110/2015 ED, 4. art.	Erabiltzaileak entregaren egiaztagiri dokumentala eska dezake.	Ez dagokio	

Gaia	Jarduera/instalazioa	Legedia/Arauak	Legediatik ateratako baldintza aplikagarriak		Betetzen du	Oharrak
			110/2015 ED, 51. art.	Erabiltzaileak AEEHak bereizita entregatzeko betebeharra du.	Bai	Hondakin guztiak udal-zerbitzuen bidez kudeatzen dira.
	Pilen eta metagailuen hondakinak	710/2015 Errege Dekretua, uztailaren 24koa, pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua aldatzen duena.	710/2015 ED, hemeretzigarrena, 21. art.	Pilak/metagailuak gaikako bilketa-puntuetan, banatzaile edo saltzaileen establezimenduetan edo kudeatzaile baimenduei entregatzen zaizkie.	Bai	Hondakin guztiak udal-zerbitzuen bidez kudeatzen dira.
	Erabileraz kanpoko ibilgailuak	20/2017 Errege Dekretua, urtarrilaren 20koa, bizitza erabilgarriaren amaierako ibilgailuei buruzkoa	20/2017 ED, 5.1 eta 5.2 art.	Ibilgailua baztertu behar duen titularrak, baita abandonatutako ibilgailuak dituzten udalek ere, ibilgailua TBZ batera (Tratamendurako Baimendutako Zentroa) entregatu beharko dute.	Dagokionean	
	Ontzi- eta enbalaje-hondakinak	**ESTATUKOA** 1055/2022 Errege Dekretua, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa (2023tik aurrera aplikatzekoa). 11/97 Legea, apirilaren 24koa, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa. 782/98 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Ontziei eta Ontzi Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta betearazteko Erregelamendua onartzen duena.	782/98 ED, 4. art.; 11/97 Legea, 12. art.	Ontzi-hondakinak materialka bereizita entregatzen dizkiote agente baimendu bati, birziklatzeko, balorizatzeko edo berreskuratzeko.	Bai	Hondakin guztiak udal-zerbitzuen bidez kudeatzen dira.
URAK	**Udaletxeko uren isurketa**	**ESTATUKOA** 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena. 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena, abuztuaren 2ko 29/1985 Uren Legearen atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzen dituena. 606/03 Errege Dekretua, maiatzaren 23koa, apirilaren 11ko 849/86 Errege Dekretua aldatzen duena. ARM/1312/2009 Agindua, maiatzaren 20koa, jabari publiko hidraulikoko ur-aprobetxamenduek erabilitako ur-bolumenak, jabari horretara egindako itzulketak eta isurketak eraginkortasunez kontrolatzeko sistemak arautzen dituena.	Kolektorera isurtzeko erregelamenduaren 11. art.	Isurketa-baimena eskatzea	Bai	Udalerriaren isurketa-baimena dago, gaur egun Gipuzkoako Ur Partzuergoaren izenean.
	Uren aprobetxamendua	**AUTONOMIKOA. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa. 181/2008 Dekretua, azaroaren 4koa, Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko-Finantzarioaren Erregelamendua onartzen duena. 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko Ibai eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa behin betiko onartzen duena (Kantauri eta Mediterraneo isurialdeak).**	Uren Legea, 59. art. JPH Erregelamendua 83. art.	Administrazio-emakida lortzea	Bai	ADMINISTRAZIO-EMAKIDA: Irimo mendiko hainbat iturbururen administrazio-emakida dago.
			42. art.	Dagokion kanona ordaintzea	Bai	Urtero, urtarrilean, aurreko urtean egindako kontsumoaren autolikidazioa aurkezten da eta uraren kanona ordaintzen da.
		Partzuergoaren kolektorera isurtzea arautzen duen erregelamendua				
	Energia Jasangarritasuna	**AUTONOMIKOA. 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, EAEko Energia Jasangarritasunari buruzkoa. 254/2020 Dekretua, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzkoa.**	4/2019 Legea. 254/2020 Dekretua	Eraikin publikoen inbentarioa izatea. Titulartasuneko eraikinen eta instalazioen inbentarioa, haien azalera erabilgarria eta eraikitako azalera osoa metro karratutan, energia-kalifikazioa eta eraikin bakoitzaren energia-kontsumoa eta -gastua barne. Betebehar horrek ez ditu barne hartzen partikularrek edo enpresek alokairuan eremu pribatuan erabiltzen dituzten etxebizitza edo lokalen kontsumoak.	Bai	
				Argiteria publikoaren ondoriozko kontsumoen inbentarioa	Bai	SIE programa
				Ibilgailu-parkearen ondoriozko kontsumoen inbentarioa, ibilgailu motordunen eta motorrik gabekoen kopurua, erabilitako erregai mota bakoitzaren guztizko kantitatea eta ibilgailu bakoitzaren erabilera zehaztuz.	Bai	

Gaia	Jarduera/instalazioa	Legedia/Arauak	Legediatik ateratako baldintza aplikagarriak		Betetzen du	Oharrak
			254/2020 Dekretua	Dagokion inbentarioak Eusko Jaurlaritzan energiaren arloan eskumena duen zuzendaritzari bidaltzea, haren webgunean argitaratutako formatuetan, urtero; informazio eguneratua urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan bidali beharko da.	Bai	
			4/2019 Legea.	Euskal administrazio publiko bakoitzaren eraikin eta instalazio guztiek energia elektrikoaren kontagailuak izan beharko dituzte, urrutiko neurketa, erregistroa eta karga-kurba ordubete baino laburragoko aldietan transmititzeko gaitasunarekin. Kontagailuetatik lortutako informazioa, gutxienez egunero, eraikin eta instalazio guztietarako modu zentralizatuan egongo da eskuragarri.	Bai	
			4/2019 Legea.	Eraikin bakoitzeko energia-kontsumoaren kontrola, erabilitako energia guztien kontsumoak eta kostu ekonomikoa barne, gutxienez urtean behin egingo da, hileko oinarriarekin.	Bai	
			254/2020 Dekretua	Ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko energia-jarduketako unitateek, bai eta otsailaren 21eko 4/2019 Legearen eraginpeko gainerako administrazio publikoek ere, aurreko ekitaldian energia mota bakoitzean egindako kontsumoak jakinaraziko dizkiote energiaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari, bakoitzak kudeatutako eraikinei eta haien zatiei, instalazioei eta ibilgailu-parkeari dagozkienak, eta, hala badagokio, autokontsumoaren bidez estalitako kontsumoak bereizita zehaztuta.	Bai	
			4/2019 Legea	Euskal administrazio publiko guztiek urte anitzeko energia-jarduketa plan propioak diseinatu beharko dituzte; horietan, beren jarduera-eremuko egoeraren diagnostikoa egingo dute eta indarraldian gauzatu beharreko estrategiak finkatuko dituzte. Nolanahi ere, planak egiteko prozesuan herritarren behar bezalako parte-hartzea bermatuko da.	Prozesuan	
			254/2020 Dekretua	Energia Jarduketako Plan Orokorra: a) Eraikinen eta haien zatien eta instalazioen inbentarioa, azalera erabilgarria eta eraikitako azalera osoa metro karratutan, energia-kalifikazioa eta energia-iturri bakoitzeko energia-kontsumoa barne, Dekretu honen 3.3 artikuluan jasotakoa kontuan hartuta. b) Ibilgailu-parkearen inbentarioa eta haren ondoriozko kontsumoak energia-iturriaren arabera, motordun eta motorrik gabeko ibilgailuen kopurua, lurrekoak, itsasokoak eta airekoak, eta ibilgailu bakoitzaren erabilera zehaztuta. c) Energia-jarduketako unitateak zehaztea. d) Energia-kontsumoaren erreferentziazko oinarrizko maila ezartzea. e) Lortu nahi diren helburuak ezartzea. f) Auditoria- eta ziurtapen-planak definitzea, horiek egiteko irizpide eta epeekin. g) Langileen prestakuntza- eta sentsibilizazio-planak definitzea. h) Beharrezko inbertsioak zenbatestea. i) Jarduketak planifikatu eta programatzea.	Prestaketa-prozesuan	
			4/2019 Legea.	Energia-ziurtagiria izatea eta leku publiko batean erakustea	Bai	
			4/2019 Legea. 254/2020 Dekretua	4 urtean behin energia-auditoria egitea (70 kW baino potentzia termiko nominal handiagoko eraikinak)	Bai	
			4/2019 Legea	Energia elektrikoaren kontagailuak izatea, urrutiko neurketa, erregistroa eta karga-kurba ordubete baino laburragoko aldietan transmititzeko gaitasunarekin. Kontagailuetatik lortutako informazioa, gutxienez egunero, eraikin eta instalazio guztietarako modu zentralizatuan egongo da eskuragarri.	Bai	

Gaia	Jarduera/instalazioa	Legedia/Arauak	Legediatik ateratako baldintza aplikagarriak		Betetzen du	Oharrak
ENERGIA/KLIMA-ALDAKETA			4/2019 Legea	Udal-langileak energia-eraginkortasunari buruz prestatzea eta aldaketa sustatzen duten jarduketetan langileak inplikatzea.	Bai	
			4/2019 Legea	B baino energia-kalifikazio txikiagoa duten eraikinen % 40k kalifikazio hori gutxienez B mailara hobetu beharko dute 2030 baino lehen.	Prozesuan	2030era arteko epea
			Dekretua, 4. art.	Energia Eraginkortasuneko Ziurtagiri eguneratua izatea	Bai	
			Dekretua, 4. art.	Ziurtagiria horretarako gaitutako Erregistroan inskribatzea.	Bai	
			Dekretua, 4. art.	Energia Eraginkortasuneko Etiketa toki nabarmen eta publikoarentzat argi ikusgai batean erakustea nahitaezkoa da.	Bai	
			4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzkoa	Euskal administrazio publikoek erosten dituzten ibilgailuen % 100ek erregai alternatiboak erabili beharko dituzte.	Dagokionean	2023tik udaltzaingoarentzat renting bidezko ibilgailu elektriko bat dugu.
				Euskal administrazio publikoen titulartasuneko eraikin berriek ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak izan beharko dituzte.	Dagokionean	
				Legea indarrean sartu eta bi urteko epean, 5.000 biztanletik gorako udalerriek Hiri Mugikortasuneko Plana izan beharko dute.	Bai	2022an mugikortasun-plan bat egin da. Oraindik berrikuspen-fasean dago.
		ESTATUKOA 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.	3. artikulua.	Berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko, energia berriztagarriei eta energia-eraginkortasunari buruzko helburuak.	Prozesuan	2030era arteko epea
		AUTONOMIKOA 1/2024 LEGEA, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa.	1. artikulua	Xedea: Euskadin beranduenez 2050erako klima-neutraltasuna lortzeko esparru juridiko egonkorra ezartzea. Europan hartutako konpromisoekin bat etortzeko, 2030erako berotegi-efektuko gasen isuriak 2005eko erreferentzia-urtearekiko % 45 murrizteko bitarteko helburua ezartzen da; hau da, 1990eko isuriekiko % 33ko murrizketaren baliokidea.	Prozesuan	Energia eta Klima Plana egin behar da 2 urteko epean. 2025ean kontratatua.
		ESTATUKOA 214/2025 ERREGE DEKRETUA, karbono-aztarnaren, konpentsazioaren eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroa sortzen duena, eta karbono-aztarna kalkulatzeko eta berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko planak egin eta argitaratzeko betebeharra ezartzen duena. (Maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen hamabigarren azken xedapena garatzen du, eta karbono-aztarnaren, konpentsazioaren eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroaren funtzionamendua hobetu eta eguneratzeko aldaketak sartzen ditu.)	11. artikulua. Karbono-aztarna kalkulatzeko eta murrizketa-plan bat egin eta argitaratzeko betebeharra.	Xedea: karbono-aztarnaren, konpentsazioaren eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroa sortzea (aurrerantzean, erregistroa).	Ez dagokio	
	Instalazio termikoak (beroa, hotza eta ur bero sanitarioa)	**ESTATUKOA. 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua onartzen duena.**	1027/2007 Errege Dekretua, 24. art.; 2008ko uztailaren 22ko Agindua	Memoria teknikoa izatea eta instalazioaren ziurtagiria lortzea.	Bai	Hotz- eta bero-ekipoei eraginten die
		1826/2009 Errege Dekretua, azaroaren 27koa, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onartutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua aldatzen duena. 238/2013 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onartutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduko zenbait artikulu eta jarraibide tekniko aldatzen dituena.	1027/2007 Errege Dekretua 23. art.	Instalazioaren datu teknikoen fitxa izatea	Bai	
			2008ko uztailaren 22ko Agindua, 4. art.	Galdaren mantentze-lanak egiten dira eta ziurtagiria dago.	Bai	
		178/2021 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onartutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua aldatzen duena. AUTONOMIKOA	1027/2007 Errege Dekretua, 27. art.	Mantentze-eragiketen eta instalazioetan gertatzen diren konponketen erregistroa gutxienez 5 urtez artxibatzen da.	Bai	
				Instalazioetan mantentze-data eta identifikazio-marka adierazita dituen etiketa itsasgarria izatea.	Bai	

Gaia	Jarduera/instalazioa	Legedia/Arauak	Legediatik ateratako baldintza aplikagarriak		Betetzen du	Oharrak
		2008ko uztailaren 22ko AGINDUA, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari (EITE) buruzko arauak ematen dituena.	1027/2007 Errege Dekretua, 28. art.	Mantentze-lanak tituludun teknikari batek egiten ditu, mantentze-zuzendariaren eginkizunekin.	Bai	
			2008ko uztailaren 22ko Agindua 5. art.	Instalazioen aldizkako ikuskapenak egitea	Bai	
				Ikuskapen-data, identifikazio-marka eta errendimendu-balioa adierazita dituen etiketa izatea	Bai	
			2008ko uztailaren 22ko Agindua 5. art.	Ikuskapen-ziurtagiria izatea	Bai	
			2008ko uztailaren 22ko Agindua 5. art.	Aldizkako ikuskapenen datuak dagokion industriako lurralde-bulegoari jakinaraztea	Bai	
			1826/2009 Errege Dekretua Artikulu bakarra	Zenbait galdara instalatzea debekatuta dago	Bai	
			1826/2009 Errege Dekretua Artikulu bakarra	Ez dira airearen tenperaturaren muga-balioak gaindituko	Bai	
	Ibilgailuen isuriak		711/2006 Errege Dekretua. 1.1 art.	Ibilgailuek dagokienean IAT pasatzen dute.	Bai	
			711/2006 Errege Dekretua. 1.14 art.	Ikuskapen teknikoak behar bezala gainditu dituzten ibilgailuek 1987/1985 Errege Dekretuan adierazitako bereizgarria eraman beharko dute. Gainera, azken ikuskapen-txostena eraman beharko da, eta gidariak trafikoa zaintzeko agenteek eskatuz gero erakutsi beharko du.	Bai	
		AUTONOMIKOA. 4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzkoa	21. art.	Euskal administrazio publikoek erosten dituzten ibilgailuen % 100ek erregai alternatiboak erabili beharko dituzte.	Dagokionean	2023tik udaltzaingoarentzat renting bidezko ibilgailu elektriko bat dugu.
			21. art.	Euskal administrazio publikoen titulartasuneko eraikin berriek ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak izan beharko dituzte.	Dagokionean	
			24. art.	Legea indarrean sartu eta bi urteko epean, 5.000 biztanletik gorako udalerriek Hiri Mugikortasuneko Plana izan beharko dute.	Bai	2022an egindako Mugikortasun Plana. Berrikuspen-fasean dago.
SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEN ERABILERA	**Substantzia kimikoen edo prestakinen erabilera**	REACH Erregelamendua ((EE) 1907/2006 Erregelamendua) eta aldaketak https://echa.europa.eu/es/regulations/reach/legislation	Azken erabiltzaileak (substantziak edo nahasteak erabiltzen dituzte, baina ez dizkiete hornidura-kateko ondorengo agenteei ematen; adibidez: itsasgarrien, estalduren, tinten, lubrifikatzaileen, disolbatzaileen eta abarren erabiltzaileak).	Segurtasun-datuen fitxan (SDS) eta esposizio-agertokian jasotako neurri egokiak identifikatu eta aplikatzea.	Bai	
				Hornitzaileei kasuan kasuko substantziaren arriskuei buruzko informazio guztia jakinaraztea.	Bai	
				Kezkagarriak diren substantzia kimikoen kasuan arauzko baldintzak betetzea	Bai	

Gaia	Jarduera/instalazioa	Legedia/Arauak	Legediatik ateratako baldintza aplikagarriak		Betetzen du	Oharrak
KONTRATAZIO PUBLIKOA		9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora eramaten dituena.	129. art.	Kontratuaren xedeak ingurumenari eragiten dionean edo eragin diezaiokeenean, preskripzio teknikoak jasangarritasun- eta ingurumen-babeseko irizpideak aplikatuz definituko dira.	Prozesuan	
INGURUNEKO ZARATA	**Inguruneko zarata**	37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa. 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, azaroaren 17ko 37/2003 Zaratari buruzko Legea garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta isuri akustikoei dagokienez. 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko kutsadura akustikoari buruzkoa Zaratari buruzko Udal Ordenantza	Zaraten aurkako babesari buruzko udal-ordenantza	Zaratari buruzko Udal Ordenantzan ezarritako isuri akustikoen muga-balioak betetzen diren egiaztatzen da.	Betetzen da	
			213/2012 Dekretua, 45. art.	Eremukako planak egitea	BAI	HAPOn egin da
LURZORUAK	**Potentzialki kutsatzailea den jarduera**	1/2005 Legea, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzkoa. 9/2005 ED, lurzorua potentzialki kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuak deklaratzeko irizpide eta estandarrak ezartzen dituena. 22/2011 Legea, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa. 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena.	209/2019 Dekretua	Lurzoruaren kalitateari buruzko deklarazio-prozeduretatik salbuesteko kasuetan dagozkion txostenak egitea.	Dagokionean	Salbuespenak izapidetzeko prozedura bat idatzi da.
SEGURTASUNA ETA INSTALAZIOAK	**Suteen aurkako instalazioa**	**ESTATUKOA. 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, Suteen Aurkako Babes Instalazioen Erregelamendua onartzen duena.**	5. art. CE marka	Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko martxoaren 9ko 305/2011 (EB) Erregelamenduaren aplikazio-eremuan edo aplikatu beharreko beste Europako zuzentarau batzuetan sartzen diren suteen aurkako babes-produktuek (ekipoak, sistemak edo haien osagaiak) CE marka eramango dute, betiere zehaztapen tekniko harmonizatua badute, arau harmonizatua edo Europako ebaluazio-dokumentua izan.	Bai	
			1. art.: Larrialdiko argiztapen-sistemak	Ikus 10.1.g artikuluaren argibidea. Gainera, II. eranskineko 8. puntuan honako hau esaten da: "Larrialdiko argiztapen-sistemen kasuan, instalazioa abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuak onartutako Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoan ezarritakoaren arabera mantendu beharko da."	Bai	
			14. art. Mantentze-enpresen jarduera-eremua	1. Erregelamendu honetan aipatzen diren ekipo eta sistemen mantentze-lanak mantentze-enpresek egingo dituzte, eta behar bezala gaituta egongo dira mantentze-enpresa gisa alta eskatzen duten autonomia-erkidegoko organo eskudunaren aurrean, mantenduko dituzten ekipo edo sistemetarako.	Bai	
				2. Suteen aurkako babes-ekipo edo -sistemen erabiltzaileak, horien mantentze zuzena egiteko behar adinako baliabide tekniko eta giza baliabideak eta 15. artikuluaren e) apartatuaren araberako erantzukizun zibileko asegurua baditu, horien mantentzaile-izaera eskuratu ahal izango du, 16. artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena autonomia-erkidegoko organo eskudunaren aurrean aurkeztuta.	Bai	
			21. art. Berrikuspena eta mantentze-lanak	1. Erregelamendu honen mende dauden suteen aurkako babes aktiboko ekipo eta sistemak II. eranskinean ezarritako mantentze-berrikuspenen mende egongo dira; bertan, kasu bakoitzean, bi mantentze-lanen artean igaro daitekeen gehieneko denbora zehazten da.	Bai	
				2. Mantentze-lan horien aktak, lanak egin dituzten langile kualifikatuek sinatuak, autonomia-erkidegoan industria-arloan eskumena duten zerbitzuen eskura egongo dira, gutxienez, jaulkitzen diren egunetik bost urtez.	Bai	
			22. art.: Aldizkako ikuskapenak	Aldizkako ikuskapena 10 urtean behin, zerbitzuan jartzen denetik. Ikuskapen horien akta egingo da, ikuskapena egin duen kontrol-erakundeko teknikari tituludun eskudunak eta instalazioaren titularrak sinatua; biek kopia bana gordeko dute, eta autonomia-erkidegoan industria-arloan eskumena duten zerbitzuen eskura egongo da.	Bai	
	Behe-tentsioa	842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe-tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena.	22. artikulua. Instalatzaile baimenduak	Instalazioa instalatzaile baimendu batek egin behar du.	Bai	

Gaia	Jarduera/instalazioa	Legedia/Arauak	Legediatik ateratako baldintza aplikagarriak		Betetzen du	Oharrak
			ITC-BT-04	Instalazioak zerbitzuan jartzeko baimena izatea	Bai	
			ITC-BT-05	Instalazioen aldizkako ikuskapenak OCA baten bidez egitea ezarritako maiztasunarekin (gutxienez 3 urtean behin; baldintza bereziak ezar daitezke).	Bai	
	Gas naturala	**AUTONOMIKOA. 125/2016 Dekretua, irailaren 6koa, gasa hartzeko instalazioen ikuskapena eta berrikuspena arautzen dituena.**	2. art. Instalazioaren ikuskapena	Instalazioaren ikuskapena egitea	bai	
	Igogailuak	**ESTATUKOA. 88/2013 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretuak onartutako Jasotzeko eta Mantentzeko Aparatuen Erregelamenduko AEM 1 "Igogailuak" Jarraibide Tekniko Osagarria onartzen duena. AUTONOMIKOA. 5/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa, igogailuen mantentze-lanetarako eta haien aldizkako ikuskapenak egiteko prozedura ezartzen duena.**		Igogailua zerbitzuan jartzea	bai	
			3. art.	Hileko berrikuspena	bai	
			5. art.	Ikuskapena 2 urtean behin	bai	
INGURUMEN-INFORMAZIOA	**Ingurumen-informazioa**	27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumen-arloan informaziorako sarbidea, parte-hartze publikoa eta justiziarako sarbidea izateko eskubideak arautzen dituena (2003/4/EE eta 2003/35/EE Zuzentarauak barne hartzen ditu)	6. art.	Ingurumen-informazioa zabaltzeko neurriak hartzea	Bai	Ingurumen-informazioa webgunearen bidez zabaltzen da eta sare sozialen bidez sustatzen da.
			11. art.	Ingurumen-informazioa erraz eskuratzeko moduko forma eta formatuetan eskuragarri jartzea.	Bai	Eskaera bakoitzari erantzuten zaio eta eskatzailearen beharretara egokitutako erantzuna ematen da.
		10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.	1. art.	a-tik l-ra bitarteko apartatuak	Bai	

BORONDATEZKO HITZARMENAK

- Europako hiriek jasangarritasunerantz egiteko gutuna onartzea. Aalborgeko Gutuna. 2001eko otsailaren 22a.
- Uraren Euskal Agentziarekin (URA) lankidetza-hitzarmena
- 2022an Udalsarea 2030i atxikimendua berritzea (Udalerri Jasangarrien Euskal Sarea)

URRETXUKO Udaleko Lurralde Arloak garatutako jarduerak aplikatu beharreko indarreko ingurumen-araudia, Europakoa, estatukoa, autonomikoa eta tokikoa, betez egiten dira, baita borondatez hartutako baldintzak ere; eta adierazten du ez duela baldintza horiek ez betetzeagatik inolako zehapenik jaso.

10. INGURUMEN-ADIERAZPENAREN BALIOZKOTZEA EGIAZTATZAILEAREN ALDETIK
INGURUMEN-ARLOAN AKREDITATUA

Urretxuko Udaleko Lurralde Arloa 1221/2009 EMAS Erregelamenduaren 7. artikuluko erakunde txikiaren salbuespenari atxikitako erakundea da, 2017/1505 (EB) Erregelamenduaren arabera aldatua. Baliozkotutako hurrengo Ingurumen Adierazpena 2026. urteari dagokiona izango da eta 2027an argitaratuko da, tarteko urtean haren eguneratzea egiteari kalterik egin gabe.

Ingurumen Adierazpen honek 2025. urteari dagokion informazioa jasotzen du. Eguneratu eta IHOBEri (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa) aurkeztu zaio.

Adierazpen hau honako webgune honetan argitaratuko da: https://urretxu.eus/es/

Ingurumen Adierazpen honen edukiari buruzko edozein kontsultarako, gurekin harremanetan jar zaitezke ingurugiro.ur@urretxu.eus helbide elektronikora idatziz edo 943038082 telefonora deituz.

Harremanetarako pertsona: Amaia Lizarralde

Urretxun, 2026ko ekainaren 2an

Sinadura

Jon Luqui Albisua

